

## **BEHIN BATEAN BIGARREN LAN HITZARMENAREN MAHAI NEGOZIATZAILEA (BEHINGOZ) ERATU ZEN...**

Nahiz eta lehenengo Lan Hitzarmena 2006ko abenduaren 31ra arte irupena zuen, 2007ko apirilaren 2ra arte Mahai Negoziatzailea ez zen eratu. Egun batzuk pasa eta gero, apirilak 19, sindikatuok plataformak aurkeztu genituen baina ekainaren bukaera arte Partzuergoak ez zuen bere proposamena plazaratu. Horrela, urriaren hasieran negoziatorako egutegia finkatuko zelaren hitz-emanarekin, ikasturtea bukatu zen.

## **HANDIK DENBORA LUUZE-LUZEA PASA ONDOREN...**

Hurrengo ikasturtea hasi zen eta iraila, urria, azaroa (hiruhilabete oso bat!!!) pasa zen Partzuergoak Mahai Negoziatzailea bildu gabe. Hau ikusita, sindikatuok haserretzen hasi ginen. Batzuk, bere kabuz, prentsa aurre eta kontzentrazio bat edo beste egiten hasi ziren.

Orduan, abenduaren hasieran, Partzuergoak Mahaia berriro biltzea erabaki zuen. Proposamen berria zekarren eta LEP deialdia!!!

## **MAHAIKIDE BATZUK ELKARTURIK...**

Gauzak horrela, **STEE-EILAS**ek ordezkaritza gehien duen sindikatuari dinamika komuna ea bultzatuko zuen galdetu zion eta urtarrilean ordezkaritza dugun 3 sindikatuok bildu eta plataforma bakarra aurkeztera pasatu ginen.

## **PARTZUERGOAK LEP DEIALDIAREN NEGOZIAZIOA ERABILIZ...**

Partzuergoak ez zuen komunean egindako proposamena nahikoa ikusten adostasunetara ailegatzeko.

Orduan, bere eskuetan zeukan errekurtsio potentia erabili zuen Partzuergoak: LEP deialdiaren negoziazioa.

Partzuergoak epe laburrean (15 egunetan edo) LEP eta Lan hitzarmenari buruzko aurre akordioa sinatu beharko litzatekeela esan zigun, bestela LEPa martxan jarriko lukete.

## **AURRE AKORDIOA SINATU GENUEN**

Gertatutakoa kontutan izanik, eta lehenengo LEP deialdia zuen garrantzia ikusita batera joaten ginen sindikatuok berriro bildu ginen eta gure eskaerak hurbildu genituen aurre akordio batera iritsi ahal izateko.

Azkenik, Martxoaren 13an egondako Mahai Negoziatzailean akordio batera heldu ginen, apirilaren 1an formalki sinatua izan dena.

**BAINA... ZER ARRAIO SINATU DUGU?**

	Gaur egun duguna	Aurre akordioa
SOLDATA IGOERA	26.569 €	2007rako: 4,75%igoera (27.831,02 €) 2008rako: itxi gabe, gutxienez 3,7 eta gero igo
LAN EGUNAK	<b>Urtean:</b> 213 <b>Umerik gabe:</b> 5 (3 irailen+ 2 uztailean) <b>Umeekin:</b> 208 <b>Txandaka hartzeko egunak:</b> 4 <b>Haurreskolak zabalik:</b> 212	<u>2008-2009 ikasturtean:</u> <b>Urtean:</b> 211 <b>Umerik gabe:</b> 4 (3 irailen+1 uztailean) <b>Umeekin:</b> 207 <b>Txandakako egunak:</b> 2 <b>Haurreskola zabalik:</b> 209  <u>2009-2010 ikasturtean:</u> <b>Urtean:</b> 210 <b>Umerik gabe:</b> 4 (3 irailen+1 uztailean) <b>Umeekin:</b> 206 <b>Txandakako egunak:</b> 2 <b>Haurreskola zabalik:</b> 208
KOORNINAZIO DENBORA	Unitate kopurura ⇒Eguneko dedikazioa 6tik gora ⇒ 90 min 2tik-6ra ⇒ 1 ordu 1 ⇒ 45 min	Unitate kopurura ⇒Eguneko dedikazioa 8tik gora ⇒ Lanaldi osoa 6-7 ⇒ Lanaldi erdia 4-5 ⇒ 90 min 2-3 ⇒ 1 ordu 1 ⇒ 45 min
LAN ORDUAK: Arreta zuzena	Haurreskolan: 7 ordu Arreta zuzena: 6 ordu +15 min Osagarria: 45 min	Haurreskolan: 7 ordu Arreta zuzena: 6 ordu <u>2008-2009 ikasturtean</u> kontratazio berririk eskatzen ez dutenen haurreskoletan: 6 ordu (15 min horiek metatu, barne koordinaziorako) <u>2009-2010 ikasturtean:</u> aurreko neurria haurreskolen %20ra zabalduko da
FORMAKUNTZA	101 ordu, horietatik: -Ziurtagiri ofizialen bitartez: 60 -Erregistro pertsonalaren bitartez: 41	100 horietatik: -Ziurtagiri ofizialen bitartez: 50 -Erregistro pertsonalaren bitartez: 50

Iraupena: 2009ko abenduaren 31ra arte. Antolakuntza 2010ko uztailearen 31ra arte

**GEROARI BEGIRA** (oraindik negoziatzeke geratzen dena):

Lan Hitzarmen osoa borobiltzeko geratzen zaiguna, hainbat ataletaz ez baitugu orain arte hitz egin:

- Lizenziak
- Baimenak
- Kontratu motak: ibiltariak, lan pilaketa kontratua
- Soldata igoera 2008rako: itxi gabe, gutxienez %3,7 eta gero, 2009ko otsailean berrikusi (maisua-maistren igoera kontuan izanik).
- Ordezkapenak
- Langile eta Koordinatzaileen formakuntza
- Hobekuntza Sozialak
- Jarduera Sindikala
- Koordinatzaileentzako pizgarria
- Osasuna eta Segurtasuna: Laneko arropa, prebentzio delegatuentzako ordu kreditua...
- Berdintasun Batzordea